

## EZ ADIORIK MIXEL

**10** EL SERVICIO DE AYUDA AL DOMICILIO CONECTA CON EL MUNDO A LAS PERSONAS QUE VIVEN SOLAS Y DISPERSADAS

**21** CAPARROSO STOP, EROSKI COMPLICE

**3 IRITZIA:**  
 • Etorkizunaren aldeko borroka Lekarozko Aroztegian  
*Joseba Otondo*

**4 EDITORIALA:**  
 • Ez adiorik Mixel

**10 ERREPORTAJEA:**  
 • Nerea Llantada Zabala

**14 ERREPORTAJEA:**  
 • Basogintza iraunkorra, Errez

**19 BERRIAK:**  
 • Aldaketak baso-laguntzei buruzko dekretuetan

**20 BERRIAK:**  
 • Noviercas

**21 BERRIAK:**  
 • Makrogranjarik ez!

**22 BERRIAK:**  
 • La inseguridad alimentaria

**24 ERREPORTAJEA:**  
 • Leartiker

**28 AGURRA:**  
 • Idoia Aparicio

**29 GOMENDIOAK ETA FORMAIZIOA**

ELIKADURA SISTEMA  
 ETA NEKAZAL EKOIZPEN  
 IRAUNKOR BATERAKO BIDEA  
*Euskal Herria 2021-2030*



## ETORKIZUNAREN ALDEKO BORROKA LEKAROZKO AROZTEGIAN



Joseba Otondo

Baztango Lekarozko herrian, Aroztegia izeneko alderdian, hirigintza egitasmoa egin nahi dute, nekazaritzako lurretan. 228 familia bakarrek etxebizitza, luxuzko hotela eta 9 zuloko golf zelaia. Hori guztia Baztango udalaren eskumenen gainetik, lekaroztarren hitza errespetatu gabe eta 2017an Baztanen egin zen herri-galdeketeri bizkarra emanez.

Yolanda Barcinaren (UPN) eta Uxue Barkosen (Geroa Bai) Nafarroako Gobernuak proiektuaren alde sutsu egin dute, proiektua udalez gaidikoa izatea onartuz eta gehiegizko eraikuntza eta luxua foru intereseko izendatuz.

Martxoaren 18an lanak hasteko zuinketa-akta sinatu zen eta handik gutxira hondeamakinak sartu ziren. Egun gutxiren buruko lanak gelditzeko erresistentzia kanpalekua antolatu zen, erresistentzia aktibo eta bakesuaren bidez hamaika egunen ondotik lanak geldiarazi zituena. Kanpaldiak, herritarren irmotasunak, injustiziaren aitzinean zutitzeak... jendearen aldeotasuna piztu zuen Baztanen eta Euskal Herri osoan. Alta, proiektua oraino ez da gelditu eta honek luze joko duela seguru da.

Aroztegiko proiektuak aldi desberdinak izan ditu, 2008an lehendabiziko ahaleginak hasi ondotik; denbora guzti horretan proiektuaren kontrako borroka juridiko eta herritar luzea izan da, proiektuaren hasiera gibelarazi duena, baina ez gelditu.

Aroztegiko egitasmoak, agerikoa denez, eztabaida bizia ekarri du eta aurkako arrazoiak aunitz badira ere, hauek nabarmendu daitezke:

Proiektu honek nekazaritzako lurak eta oihanak gaue- tik egunera lurzoru hirigarrien kalifikatu ditu, nekazaritzako lurren gaineko presioa handituz izaera eta helburu sozialik gabeko etxeak egiteko.

Helburu sozialik gabea diogu Baztanen, Nafarroako Estatistika Erakundearen arabera 1600 etxebizitza inguru hutsik daudelako edo bigarren bizitegiak direlako. Gainera 2002ko udal plan hedakorrek bailaran 1.660 bizitegi berri eraikitze adina lur kalifikatu zuen, hori bai, herrien segidan, modu organikoan. Aroztegia Le-

karozko herrigunetik bereiz eginen litzateke, 700 pertsonako gunea populatu berria sortuz Baztanen, bailarako hirugarren handiena litzatekeena eta jatorrizko lurraldearen antolaketa hautsiko lukeena.

Gainera Aroztegiko banaketa eremuak lur jabe txikien eta nekazarien lurren eta Baztango herri-lurren desjabetze faktikoa ekarri du. Banaketa eremua konpentsazio batzorde batek kudeatzen duenez eta horretan Palacio de Arozteguía S.Lk gehiengoa duenez, banaketa eremu osoan gobernatzen du, ingurune horretako gainerako lur-jabeen iritzi eta nahiak kontuan hartu gabe. Lurren arpilatze adibide argia.

Hori guztia Baztango erakundeen ahalmenen gainetik egin da. Ohikoan lurren kalifikazio aldaketa udalaren eskumena da. Baina Aroztegikoa udalez gaidikoa den plan sektorial bezala izapidetzea onartu zuen Nafarroako Gobernuak, autoritarismo jokaldi nabarmenean. Horrek Aroztegiko banaketa eremuaren sorrera ekarri zuen.

Lekaroztarrak behin eta berriz proiektuaren aurka agertu dira herriko batzarraren bidez edo herrian egindako galdeketen bidez. 2017an, halaber, Baztanen herri-galdeketa egin zen eta herritarrak proiektuaren aurka agertu ziren. Eta udalean proiektuaren aurkako gehiengo argia dago.

Baldintza horietan Palacio de Arozteguíaren egitasmoa aitzinerat ari da zilegitasun demokratikorik gabe, inposizioaren bidez, herritarren eta tokiko erakundeen nahiaren gainetik nekazaritzako lurak eta oihanak suntsituz eta lurak arpilatuz. Nafarroako Gobernuaren bedekazio guztiekin.

Krisi ekologiko eta sozial handi honetan nekazaritzako lurren defentsa eta tokiko komunitateen erabakitze eskubidea oinarrizko helburu politikoak dira, eta etorkizuneko alternatiben zutabeak.

Horrela, maiatzaren 15ean Aroztegia geldituko dugu! aldarriarekin manifestaldi jendetsua eginen da Elizondon. Hala bedi.

## Ez adiorik Mixel

El impacto del fallecimiento de Mixel Berhokoirigoin ha sido proporcional a su obra militante como baserritarra, sindicalista y activista social y político. La despedida final del 12 de mayo en Gamarte, describe a la perfección la dimensión del reconocimiento social y político a la aportación de Mixel desde el sector agrario al conjunto de la sociedad; destacando su implicación de los últimos años en el proceso de pacificación liderando desde la sociedad civil el desbloqueo del desarme de ETA, y situando en la agenda de prioridades la necesidad de resolver la vuelta de las personas presas y exiliadas a sus lugares de origen junto con el reconocimiento de todas las víctimas del conflicto. No obstante su gran legado está íntimamente ligado al sector agrario, desde el sindicalismo a la estructuración de un modelo de desarrollo ligado a una producción sostenible mediante el máximo de personas productoras. Todavía sigue presente la famosa frase de ELB (década de los 90) sintetizando esa posición: “es mejor mantener tres pequeñas explotaciones que una grande”.

Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) supuso la puesta en marcha de la herramienta y la casa común para la articulación institucional de todo el tejido asociativo creado en torno a la agricultura sostenible. Su enorme capacidad para visualizar desde una perspectiva global las consecuencias de las decisiones internacionales sobre política agraria a nivel local, posibilitaba diseñar estrategias pegadas a la realidad del territorio desde una visión colectiva y materializable. Ahí radicaba la esencia del pragmatismo que practicaba, la antítesis del pragmatismo asociado a la resignación; huyendo del corporativismo y consciente de que era imprescindible conjugar la reivindicación con la propuesta. Una propuesta política de desarrollo agrario y alimentario que contemplara el conjunto de Euskal Herria, dando continuidad a las acciones conjuntas en claves de reivindicación y protesta de ELB y EHNE de las dos últimas décadas del siglo XX.

Los efectos del modelo de intensificación en Hego Euskal Herria dificultaban más de lo imaginable la concreción de esa propuesta política; pero la conclusión de que el sindicalismo no podía limitarse a la exigencia de precios dignos y al reclamo de ayudas fue cuajando. Había que dar un salto cualitativo para avanzar en la concreción de una propuesta política, situando la Soberanía Alimentaria como objetivo central y socializarlo con el objetivo de ir sumado la adhesión de una mayoría social. Podríamos situar la puesta en marcha de LURRAMA en el epicentro de ese proceso de socialización del modelo de desarrollo que se defiende. Visualizar una estrategia similar en el conjunto de Euskal Herria aconsejaba articular un espacio que profundizara sobre ello, sin la mediatización de intereses cortoplacistas o corporativos. En esa fase se articula el movimiento ETXALDE Nekazaritza Iraunkorra, y merece la pena subrayar que el nombre y la definición fueron propuestas por Cristian Harlouxet y Mixel Berhokoirigoin.

Es público que la última reunión de las miles en las que participó Mixel, fue la que mantuvo la mesa de ETXALDE a finales de enero en Leitza. Una reunión presencial después de muchos meses por los efectos derivados de la pandemia, para ir cerrando una nueva propuesta que posibilite transformar los sistemas alimentarios y avanzar hacia un modelo de producción sostenible. En esa reunión ultimamos el contenido de un proceso de transición para la década 2021-2030, que se hará pública en el sector agrario en Julio mediante una edición especial de la revista ETXALDE (la segunda página recoge la referencia gráfica del documento). Se puede avanzar de que la propuesta parte de un diagnóstico compartido por parte de distintos organismos y colectivos como la FAO, el Comité Europeo de las Regiones, el Consejo Económico y Social Europeo, IPES-FOOF, Euskal Herria post-Covid19, ...; de que es imprescindible articular nuevos sistemas alimentarios situando la agroecología en el centro de la producción. La presentación de la estrategia “de la granja a la mesa” por parte de la Comisión Europea” posibilita un proceso de transición en esa dirección, y por primera vez en mucho tiempo los objetivos teóricos y los mecanismos parecen caminar en la misma dirección. Podríamos concluir que el marco de la nueva PAC posibilita ir completando un nuevo cuadro, y partiendo de la realidad actual podemos iniciar un camino hacia sistemas alimentarios más sostenibles. Un nuevo cuadro en el que los agentes locales e instituciones debemos asumir un papel esencial para ir definiendo nuevos sistemas alimentarios en base a políticas públicas en el ámbito local, unidas a la compra pública y al consumo; y situar la incorporación de nuevas personas (se proponen 8.500 incorporaciones para ese periodo) en la producción agraria como objetivo central. Y paralelamente posibilitar e incentivar un cambio hacia modelos de producción sostenible mediante los objetivos y mecanismos de-

finidos en la estrategia “de la granja a la mesa”. Una transición que se especifica y se define en cada sector de producción, con propuestas concretas tanto en los objetivos como en la articulación de mecanismos. La propuesta no se limita a la producción agraria alimentaria e incluye la gestión del conjunto del territorio abordando la generación de energías renovables, y también una propuesta de transición en materia de política forestal.

Mixel participó de manera activa en la construcción de este nuevo camino, y será reconocible tanto en los objetivos como el pragmatismo necesario para esta nueva transición. Darle contenido práctico a esta propuesta será nuestro mejor homenaje a la trayectoria de Mixel. En Gamarte vivimos un día con una enorme carga emocional, desde la tristeza pero con la satisfacción de poder participar y abrazar a Mikele, Jenofa, Iñaki y compartir ese último adiós con las personas allí presentes.

**Agur eta ohore Berhoko.**



etxALDE  
nekazaritza iraunkorra



bidean | euskararen bidean

etxalde@etxalde.eus  
www.elikaherria.eus

Lege Gordailua:  
SS 50-2015

Editorea: **Etxalde Nekazaritza Iraunkorra Elkartea**  
Diseinua eta maketazioa: **Diseinu eta Komunikazioa AULESTI S.L.**  
Inprenta: **Gertu S. Coop.**  
Maiztasuna: **Bihilabetekaria**  
Aleak zenbakiko: **4.650**



## Agur eta Ohore Mixel

“Berriz erraiten dut : Laborari ainitz izaitean da gakoa, instalatzeko gogoia emaitako, xoko guziak bizirik atxikitze, elkartasuna, kultura eta morala atxikitze, gure bazter eta paisai ederrak zaintze. Ez da irabazia bainan sinesten dut biharko laborantxa bide hortarik joanen dela.” Duela sei urte EHLGko lehendakaritza uztean erran zituen Mixelek hitz hauek. Duela 40 urte ere erran zitzakeen ta gaur ere !

Hitz hauek dira “le fil conducteur” belaunaldiz belaunaldi gogoan atxiki beharrekoak. Hauekin arizan da Mixel geldi geldia errepikatzen, forma desberdinetan bazen ere, pedagogikoki alde guzietan. “Laboraria ez da nagusi bat, hala balitz berak egin lezake faktura, nahi duen prezioarekin” zion...

Zer xantza ukan dugun guk, Mixel bezalako bat ukaitea bidelagun, berak zuen esperientziarekin, berak zuen borondatearekin, malizia ta umore heintto batekin, beti finezian ! Motibatzaile trebea ideia berri baten obratzeko trenerat iganarazteko... bainan ere wagoneko ostatu barrean gogotik egoiten zakiena.

Etxalde mugimenduko bilkuren ondoko bazkariak hor ditut gogoan. Zonbat maite zuen goxoki, bi irri karkailan artetik bazkariaren partekatzea... beti hala ere gaiak sakonduz.

Alaitasuna ta zorroztasuna uztartuz eraman du bizi guzia. Ainiza Gamarte Lakarra herriek eman zuten “Hiru Zitzun” ikuskizunean ikusten dut oraino Mixel Ainizako plazan bere bizikleta zaharrean inguru, antzerkilari trebea. Plaza gizona baitzen sentzu guzietan.

Bestearen behatzen zakiena, bainan helbururat heltzeko bidea tematsuki xerkatzen zuena. Mixel azken aldikotz hiri zuzen-tzen nuk, ta azken egunotan hitaz mintzatzea galdegiten dauatelarik bezala begiak bustitzen zauzkiak... Oraino emozio ikaragarria heldu zautak hiri pentsatzean, beste ainitzeri bezala hain segur. Ohore bat izan duk enetako hirekin, hire ondoan lanean artzea ta ELB aintzina ereman duten, dugun, ta eremaiten segituko duten gizon ta emazte xumeendako ere. Askatasuna, zuzentasuna, haurri-detasuna : hiru balore unibertsal horiek beti gogoan ereman ditiagu hainbeste borroka hirekin. Mixel.. Orain hi gogoan hirekin hainbeste ikasirik segituko diagu. Munduko populu guzien artean Euskal Herri xoko huntarik mundu hobeago baten alde lanean... hire enbor beretik sortu ta sortuko dituk aldaxka gazteak. Hire bai eta gure borroka huntan segituko dutenak.

Agur eta ohore Mixel. ELBren izenean, milesker Mixel.

**Panpi Sainte-Marie, ELBko idazkari nagusia**

## Bide berriak idoki dituk ainitz alorretan

Bi hitz ardura erabili dituk azken urte hotan ; Zikloa, Xantierra. Gai berezi batzutat maite huen erraitea “c’est la fin d’un cycle” ; ez hakien memento hartan hire lur huntako zikloa, hik, guk nahi baino fiteago bururatuko zela. Xantierra : Laborantxa ganbarako urteburuko biltzar nagusia egiten zelarik, hion “aurten xantier berri bat idoki dugu”.

Mixel, hire bizian baduk zonbait eta zonbait xantier idokirik. Antzerkian hasi hintzan, gero Euskaldun Gazteria (MRJC). Hire lehen artikuliak “Zertako Ez” deitua zinuten kaseta ttipian idatzi dituk. Gero laborarien sindikatean (CDJA FDSEA), gero ELB, (ELB-ren izenean Paueko laborantxa ganbaran hautetsi), Nazional mailean Confédération paysanne-en sortzaile, botz eremaile, gero, Batera, gero Euskal Herriko Laborantxa Ganbara, Lurrama, azkenik Bake bidea, bake prozesuaren alde, presoan libratzearen alde. Barkatu zonbait gauza ahanzten badituz. Bahintuen oraino bertze proeitu batzu. Hion eritasunaren berri jakin dukalarik “batiat zonbait gauza atsulutoki ixkiatzeko”. Bainan maleruski, ez duk denborarik izan. Hots, 52 urtez, azken hatseraino borrokatu hiz. Bizi oso bat zintzoki, zuzentasunaren alde, laborari ttipien, laborantxa iraunkorraren alde, Euskal Herriaren alde. Astean bizpahiru egunentzat Pariserat edo Confédérations departamendu zonbaitetako biltzar nagusietarat joaiten hintzelarik, Mikele espos lagunak kudeatzen zitian etxaldeko harat huntak. Hots, engaiamendu guzietean biak patxuer zinezten. Milesker eta goresmenak zuri Mikele.

Beti elkar lana sustatu duk erranez borrokak denek parte hartuz irabazten zirela. Bahakien bilkuretan bildumaren egiten, denen ideiak elgarretaratuz. Gogoetetan, ekintzetan, beti lehen lerrotan edo aintzindari ; Minixtroeri buru egi-

teko fida hintzan. Orhoit gituk zer bertuterekin defenditu huen Jujen aintzinean Euskal Herriko Laborantxa Ganbararen izaitea. Orhoituko gituk ere zer bertute eta kuraiarekin parte hartu dukan Luhusoko ekintzan, ondoko egunetan Pariserat ereman hinduten gaixtakin bat bezala .

52 urtez militante. Nundik heldu zitzaukan hire baitako kemen hori ?

Maite huen erraitea Euskaldun Gazteria izan zela hiretzat Unibersitate bat. 1965-1975-eko hamar-kadan Euskaldun gazteriak galditza hau egiten zian bilkuretarat heldu ziren gazteri : “zer egin nahi duzu zure bizi, zer izanen da zure biziaren helburua”. Hire errepostua Mixel : “ene bizi izanen da engaiamendu oso bat”. Garai hartan Hego Amerikan Théologie de la libération sortu zutenek zioten “la foi sans engagement c’est de l’idôlatrie”.

Hire pentsaketa, hire urrats, hire ekintza guzien bizkar hezurra izan duk : gazte denboran egin dukan agintza. Euskaldun Gazterian erraiten zitean gutarik bakotxak mundu huntan, bere ahalen arabera bazuela misione bat. Mixel, bide berriak idoki dituk ainitz alorretan. Hik erein haziak hozitu dituk. Uzta ederra duk eta izanen ondoko belaunaldiendako ; menturatzen nuk erraite-rat “mission accomplie Michel !”. Labur bilduz, ikusketari bat izan hiz : un visionnaire ! Amama Maite, Mikele, Jenofa, Inaki, Maitena, zuen hiru haurrak, familiako guziak, adixkideak, Mixel Labéguerie-k bere kantu batean zion bezala bururaten dut “ez beha gau beltzari, bainan bai izarrerik” Mixel-ek izar bereziak piztu ditu Euskal Herrian. Heien dixtura izan dadila gure ondoko egunen ipar orratz eta gidari. Milesker Mixel.

**Peio Iralur**



## Mirestekoa zen gauzak beti argi azaltzen baitzituen

Neke da Mixel Berrokori buruz zerbait idaztea. Alde batetik laguna genuelako, eta oraingoz hor dagola sinesten baitugu, mail bat edo dei bat haren ganik jasotzea uste baitugu. Bestaldetik, gure lagunaren ibilbidea nola borobildu ez baitakigu, hainbesteko hatz eta itzal utzi baitu, hemen eta urrunago. Garmarte Uhartea baserriko semea, laboraria, sindikalista, abertzalea, militantea, gizona...

Uzten du Mixelek bere ibilbidearen hainbeste dokumentu, asko publikatuak han edo hemen, eta nork daki zenbat etxeko sabaian pilatuak. Asmoa eta gogo hori zituen azken urte hauetan "behar dut denbora hartu etxean daukadan dokumentu pila hori sailkatzeko eta altxatzeko". Asmo hau ez du bete Mixelek, gaitzak goizegi kendu baitio.

Galdetu zaukun duela hilabete batzu lagun zenbaiti, eskatzen ziotela Akitaniako Berdeen alderdikoek beren hautagai zerrendan sartzea nekazaritza arloaz arduratzeko. Zer aholku emango ginion guk, nola erantzungo ginion bai ala. Hau zen tipoa! Maixuak harekin ikasten zuteneri galdetzen nundik zuen bere bidea. Lekutan nintzen pentsatzetik gogoak eta indarrak gaitz ustel horrek eramango zizkiola hilabete gutti geroago.

Guk ezagutu dugu Mixel ELB sindikata sortzen hasi zenetik, baina ordukotz bazuen egin bere herrialdean hainbeste lan. 1980 aintzineko urte haietan gazteek bazuten iparraldean etorkizuna beren esku hartzeko xede indartsu hori, lurralde hau kanpotiarren atzaparretarik zaintzeko gogo. Bere lagunekin Mixel izan da nekazari sindikalismo berriaren aroa zabaldu duen langile amorratuenetarik Ipar Euskal Herrian.

1980ko garai haietan, ELB sortzen eta sustatzen zuen garai hartan berean bazukeen Mixelek Frantziako nekazari sindikatu berrien sortzaileekin lotura hestua, eta harremanak Nafarroan eta Hego Aldean nekazari mailan mugitzen zenarekin. Eta gazteago izanik, gogoan dut eztabaidak izan zirela ELB-n erabakitzeke nori lotuko ginen Iparaldeko nekazari sindikatu berri bezala, Frantziakoei ala Hego Euskal Herrikoiei. Taldeak Frantziako sindikatari lotzea erabaki zuen.

Ordutik harat ELB sindikataren indartzean sekulako lana egin zuen Mixelek eta denbora berean frantziako confédération paysanne sortzen lehia zuen. Denek sinetsiko dute Mixel izan zela hor eragile nagusietarik, berak parte handia baitu laborantza modelo horren asmatzen. Frantziako departamendu askotan altxatu dira garapen

elkarte hauk (ADEAR deitzen dira gehienetan), Ipar Euskal Herrian holakorik ez da berez hazi Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortuko zen arte. Frantziako ADEAR guzien ametsetako eredu izan da gero EHLG, bere Lurrama ekitaldi paregabekoa gehigarri heldu zitzaioala.

Mixel plazaren erdian ezarri duen gertakaria Laborantza Ganbararen auzia izan da. Hogoi urte lehenago erabaki zuen Ipar Euskal Herriko laborari multzo batek bidea sindikatu berri baten sortzetik zoala, eta lortu zen urratsez urrats, nekazari mundu kontserbadore huntan, gehien goa biltzen zuen nekazari sindikata izateia ELB. Gauza berdina gertatu zen EHLG sortzean, ELBko nekazariak, Mixel tartean edo erdian zagola, erabaki zuten hemen eraikiko ginuela Frantziak eman nahi ez zigun egitura, gure laborantzaren kudeatzeko eguneroko tresna, gure laborantzaren norabideak lantzeko baitezpadako gunea.



Beste askok bezala, hurbilagoetik ezagutu aintzin Mixel, hizlari bezala miresten nuen hainbat hitzaldietan edo biltzarretan. Mirestekoa zen gauzak beti argi azaltzen baitzituen. Baita gertatzen zen noizean behin azalpen argitik haratago bazoala, bereziki biltzar bukaerak borobiltzen zituenean. Beti dena aintzinetik zehatz prestatzen zuen, eta hainbeste erran dauku inoiz ez atrebitzea prestatu gabe hitzaldi baterat, baina aldi bakar batzuetan hitzek eta pentsamentuek gorako bidea hartzen zuten haren ahotik, inspirazioaren magiak laguntzen balu bezala. Gogoan dugu Ainizako Munjuluseko kokagune hartan, urtarril erdiko biltzar batez, Jean Haritxelar euskalzaindiaren buru izana hurbileko alki batean jarririk zagola aho zabalik entzule, eta atrebitu ginakion galdetzera zer zion mahainean hizlari entzuten zen Mixel mutilaz. "Badu gizon horrek zerbait...(guk jende arruntek ez duguna)".

**Mikel Hiribarren Itsasuko laborari ohia**

## Gure ipar orratza

Mixel aipatzerakoan, nahi dut lehenik eskertu Mikele, zeren Mixelen engaiamendua ahal izan baitu Mikelek ixil ixila, segitu baititu, etxaldeak galdegiten dituen lan zarrak, familiako lanekin batera. Zonbat aldiz ez daut erran "nahi dut lasai joan dadin bere hitz orduetarat".

Milesker Mikele bai eta ere Iñaki eta Jenofa, aita usu etxetik kanpo izateia ulertu baituzue ttipitik. Ezagutzen ez nuelarik oraino, orroitu naiz gazte gazterik (1970 urte aldean) ikusirik mutil gazte bat, mikroa eskuan, Euskaldun gazteriak antolatu zuen kantaldi baten kudeatzaile, Garaziko gela jende mukurru zela... Ze ausartzea! Ze trebetasuna mintzatzeko... Hori zen Mixel: ausarta, trebea, argia, umila, omoretua, alegera eta laboraria. Oroz gaineratik, familia, Euskal Herria, laborantza zuen maite.

· ondotik izan dira ELB, sort aintzineko urteak bazakien ordukotz ze laborantza mota behar zen defendiatu, Euskal Herriko etxaldeak bizirik atxikitzeke. Izan da, gure "Ipar orratza" bainan beti taldeko lagunaren behatzaile. Bazakien ohar guzien biltzen gogoetek aintzina segitzeko eta nehor ez bezterrean uzteko.

· ondoko borroka guzietan, izan da gidari, bainan elkar lana, beharrezkoa zela, borroken eremaiteko, adierazten zuen beti (EHLG, Bake prozesua...).

Mixelek omore handia zuen: lagunaren arteko memento goxo aiosak, pilota partidak, bertsu saioak, mendian ibilaldiak, gain gaineratik gustukoak zituen. Maleruski, lehentasuna nahiz eman bere engaiamenduari, deskantsu memento horiek sobera baztertu ditu.

Bukatuko dut, Mixelen ganik usu aditu dugun hitzaldi hunekin. "aintzinetik galduak diren borrokek dira eremaiten ez ditugunak."

Milesker eta ez adiorik

**Bernadette Oillarburu, Jutsiko laborari ohia eta ELBko sortzaileetarikoa**

Amaitu dira nekeak  
saminak, lanak, betiko  
orain hartu atsedeen goxo  
ai Mixel, bihotz eztxiko  
nahiz goitzo joanaren minak  
malko ibaitan gaur ito  
zure uztaren ederrak  
zaitu bizi araziko  
ez bait dugu, zaude ziur  
alferrik galtzen utziko  
zuk ereindako sail oro  
jorratzen dugu segiko  
zure ametsak, zure argia  
inoiz ez dira itzaliko

*Maite Aristegi*

Zein handia gure Mixel  
bere umiltasunean  
laborantza odolean  
ta herrigintza muinean  
sindikatu zutabe  
ta buru behar zenean  
herri proiekturik bazen  
Mixel beti aldamenean  
protagonismo goserik  
gabe han ta hemen lanean  
maisua handia izanik  
ikaslearen parean  
txapela janzen dizugu  
herriaren izenean.

*Jabi Arriaga "Triplax"*



## EL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO CONECTA CON EL MUNDO A LAS PERSONAS QUE VIVEN SOLAS Y DISPERSADAS



### NEREA LLANTADA ZABALA

Coordinadora de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Busturialdea

Mantener la calidad de vida de las personas mayores en su casa y en su entorno el mayor tiempo posible, es uno de los objetivos de los programas de cuidado de Busturialdea, poniendo un foco especial en las zonas de población rural dispersa, a través de la atención personalizada.



#### ¿Qué mapa cubre la Mancomunidad de Servicios de Busturialdea?

Excepto Bermeo, que gestiona sus propios servicios, abarca el resto de municipios de la comarca. Algo más de la mitad de la población se concentra en Gernika-Lumo, y el resto, lo dividimos en dos zonas: una, que denominamos zona mixta, sería la de margen izquierda de la ría del Oka o corredor Gernika-Bermeo, donde se encuentran Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Murueta y Forua, con mayor accesibilidad en cuanto a transporte público y núcleos más compactos de población. Y la otra, que abarca un territorio muy amplio, sería la zona más rural, y que engloba el resto de pueblos de Busturialdea. Son Ajangiz, Arratzu, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Gautegiz-Arteaga, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Muxika y Nabarniz.

#### ¿Por qué esa división en zonas?

Procuramos tener en cuenta las características de la población usuaria de los servicios sociales. En los municipios de la zona rural, por ejemplo, hay menor accesibilidad al transporte público, hay más población dispersa, y son factores a tener en cuenta a la hora de organizar los servicios sociales, para que lleguen bien a toda la población.

#### Una gran parte de los servicios sociales de base están dirigidos a las personas mayores. ¿Con qué objetivo principal?

El objetivo es siempre mantener el mayor nivel de calidad de vida posible para las personas mayores en su propia casa y en su entorno. Eso cobra aún más importancia en el caso de las personas que viven en caseríos, donde el apego a su entorno y el mantenimiento de actividades, como el cuidado de la huerta o el jardín, juegan un papel muy importante para que esas personas se mantengan autónomas y activas.

#### Vamos a repasar la ventanilla de servicios dirigidos a la población mayor. ¿Cuál es el primer paso o servicio de que disponen a nivel de atención social?

El primer paso, habitualmente, es el servicio de valoración de la dependencia. Esa valoración, baremada por la Diputación, es la que fija a qué servicios y apoyos puede optar esa persona que está empezando a perder autonomía en su vida diaria.

#### El servicio de ayuda a domicilio es uno de esos servicios. ¿Quizá el de mayor peso en vuestro caso?

Es un servicio muy importante. En Busturialdea hoy en día hay 31 profesionales en el servicio de ayuda a domicilio: una trabajadora social coordinadora y 30 auxiliares sociosanitarias.

#### Quizá en zonas rurales se dan muchos casos de personas que no llegan a ser dependientes, pero sufren una pérdida de autonomía. ¿El servicio a domicilio cubre estos casos?

Eso es precisamente lo que intentamos también cubrir. Tenemos personas usuarias que no tienen baremado oficialmente un grado de dependencia por parte de la Diputación, pero desde la Mancomunidad sí que les ofrecemos este servicio. Normalmente son personas que viven solas; algunas no tienen familia cercana, otras sí la tienen, pero en la vida diaria están solas la mayor parte del tiempo. Al perder autonomía, su vida se ve muy condicionada, sobre todo si viven en zonas dispersas. El servicio presencial de ayuda a domicilio es muy importante



Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea  
Mancomunidad de Servicios Sociales de Busturialdea

**Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea**

**Alhondiga kalea, 6, Gernika-Lumo**

**94 625 51 22**

**busturialdekomankomunitatea.org**

**busturialdeazainduz.eus**



para mantener su calidad de vida, no sólo por la atención en el aspecto instrumental, sino también por el acompañamiento. Que la auxiliar esté con ellas dos o tres veces por semana es un vínculo importante, es conversación, estar pendiente de cómo está, detectar cambios en su salud, escucharle... El servicio de ayuda a domicilio conecta con el mundo a las personas que viven solas y dispersadas.

### En los municipios de carácter rural este perfil de persona mayor que vive sola es numeroso...

Sí, con la característica añadida de tener distancias largas hasta los núcleos principales del pueblo; esa lejanía condiciona mucho la vida de las personas mayores cuando pierden autonomía para la movilidad, cuando ya no pueden conducir, y el transporte público no llega a sus zonas. En Busturialdea tenemos un porcentaje de población de personas mayores muy alto, y esto sobre todo se da en los municipios rurales.

### ¿Qué papel tiene la vecindad en estos casos?

La ayuda vecinal cobra un papel muy importante en los casos de las personas mayores que viven en zonas rurales. Vemos que esa función de colchón social se mantiene entre la vecindad, y también, al tratarse de municipios pequeños, el propio Ayuntamiento es una entidad cercana, los trabajadores y concejales conocen a los vecinos y sus circunstancias. Y lo mismo ocurre con el médico y el enfermero, que tienen ese conocimiento directo y ese vínculo. Vecindad, servicio médico, Ayuntamiento y trabajadoras de los servicios sociales, son como un círculo de cuidados para las personas mayores de las zonas rurales... Un círculo que tratamos de que esté coordinado y conectado.

### “La medallita” de teleayuda también tiene mucha aceptación entre las personas mayores que viven solas.

Sí, se utiliza mucho. Telelaguntza es un servicio del Gobierno Vasco, pero es aquí, en la Mancomunidad, donde tramitamos las solicitudes para su instalación. Este servicio ha ido mejorando, teniendo en cuenta las características arquitectónicas de los caseríos; antes quizá había problemas de transmisión por el grosor de las paredes, o porque las usuarias andaban fuera del baserri y la señal no conectaba bien, pero se han hecho mejoras en este sentido. Además, antes era necesario contar con un teléfono fijo vinculado a la Teleayuda, pero ahora es posible hacerlo a través de un móvil.

### En los casos de cuidados a personas dependientes, también muchas veces se dan en los propios hogares. El papel de la persona cuidadora es vital... ¿El servicio de ayuda a domicilio también entra en estos casos?

Sí, como un apoyo necesario para que la persona cuidadora también tenga un respiro. Se dice muchas veces y es verdad: hay que cuidar a la persona que

cuida. Además también es importante enseñar a las familias cuidadoras aspectos como el de cómo movilizar correctamente a las personas dependientes, por ejemplo. Esa es otra función que realizan las auxiliares a domicilio.

### También hay un programa de formación y cuidado dirigido a las personas cuidadoras. Explícanos.

Dentro del programa Zainduz de la Diputación, ofrecemos charlas y talleres dirigidos a la formación y atención de las personas cuidadoras, aunque ahora mismo estas actividades las tenemos paralizadas por la pandemia. Estos ciclos de talleres y charlas, que suelen organizarse en otoño y antes de Semana Santa, los descentralizamos, de manera que no se den sólo en Gernika-Lumo. Se trabajan temas como las movilizaciones, alimentación, salud o también aspectos de autocuidado personal y psicológico de las propias cuidadoras. Temas como la demencia, se trabajan no sólo desde el aspecto teórico sino también ofreciendo ejercicios apropiados para utilizarlos con el familiar que se cuida; y aspectos como el tema jurídico en los casos de demencia también es habitual en esas charlas. En nuestra web busturialdeazainduz.eus se pueden consultar y descargar materiales informativos y también ejercicios sobre todos estos temas.



### ¿Las formaciones llegan entonces a todos los pueblos?

Sí, incluso hasta a los propios domicilios en algunos casos. Dentro de Zainduz, se ofrecen sesiones de formación para las personas cuidadoras en los propios domicilios; por ejemplo, va el fisioterapeuta y ofrece cuatro sesiones en cada casa, explicando a la persona cuidadora las técnicas básicas para una movilización correcta, para el masaje... y también orientación cara a adaptar el domicilio ante un caso de dependencia. Normalmente ofrecemos este servicio a unas 20 personas al año, aunque este año hemos tenido que cortar, por la pandemia.

### ¿Este servicio de formación a domicilio está muy demandado?

Somos nosotras las que desde aquí les proponemos el servicio sobre todo a casos de pueblos pequeños, que no tienen tan a mano al fisioterapeuta, o no tienen tan fácil venir a un cursillo hasta Gernika. A veces cuesta que las familias lo acepten, por aquello de que otra persona entre en tu entorno de cuidado. Pero una vez que lo utilizan, es un servicio que agradecen muchísimo.

### ¿En qué consiste el servicio Gizatek de apoyos técnicos?

Es un servicio de la Diputación que pone a disposición de las personas que lo necesiten, todo tipo de apoyos técnicos como sillas de ruedas, camas articuladas, grúas, andadores... y también la gestión de obras de adaptación en domicilios, para adaptar los baños por ejemplo. Las solicitudes las tramitamos desde aquí. Y mientras esas solicitudes se van resolviendo, tenemos un servicio propio de préstamo de apoyos técnicos desde la propia Mancomunidad, para responder rápidamente a esas necesidades. Este servicio de préstamos también sirve para convalencias puntuales, o para lesiones causadas por accidentes. Es un servicio que tiene mucha demanda.

### ¿En qué consiste el programa de Cercanía (Hurbiltasuna) que ofrecéis junto con Cruz Roja?

Ahí, las personas voluntarias de la Cruz Roja de Busturialdea van llamando por teléfono a las personas mayores que viven solas y no tienen una red familiar; a algunas semanalmente, a otras cada quince días, o cada mes. Charlan con ellas, les preguntan cómo va todo, y a veces de esas conversaciones se van detectando también nuevas necesidades, que luego se cubren. Por ejemplo, acompañarlas cuando tienen una consulta con el médico, o para hacer algún papeleo administrativo. A través de este voluntariado también se suelen hacer visitas o paseos con estas personas, y talleres de memoria o de manejo de los teléfonos móviles. A través de la Cruz Roja también se ofrece el traslado para las estancias temporales en residencias.

### La pandemia causada por el COVID-19 ¿cómo ha condicionado vuestro trabajo?

Hemos tenido que descartar las formaciones, charlas y talleres. Lo que sí hicimos, sin embargo, fue retomar la atención presencial de servicios sociales en cuanto fue posible, incluso las visitas a domicilio cuando son imprescindibles. La atención presencial es muy importante, sobre todo en el caso de las personas mayores, para las que este mundo telemático que se está propagando tanto ahora, es un elemento en el que se ven muy perdidas.

## ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ERRAZTEKO NEURRIAK BASERRITARRENTZAT

Etxez etxeoko laguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzak Foru Aldundiak ezarritako araudiak markatzen ditu. Zerbitzu horren zati bat erabiltzaileak ordaintzen du, bere errenta eta ondasunak kontuan hartuta. Baina kasu bakoitzean zenbateko zatia ordaindu behar duen ezartzea, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eskumena da Busturialdean (zerbitzu hori udalek eskaintzen duten kasuetan, udalena).

Baserriko lanetan jardun izan dutenen kasuan, nekazaritzako erregimenean kotizatu dutenen pentsioa oso murrizta izaten da, eta emakume baserriar askok, gainera, ez dute kotizatu izan, edo oso urte gutxitan kotizatu izan dute. Kasu horietan, baina, lursailen jabetza izaten dute. “Jabetza edukitzea oztopo bat da, errenta oso baxuko pertsonak izanda ere, ordainketako proportzioa altua bihurtu dezakeelako”, Llantadak azaldu duenez. Horregatik, Busturialdeko Mankomunitatean etxetz etxeoko laguntzen ordainketarako baremoak diseinatzekoan, kontuan hartu zuten nekazaritzako pentsiodunen kasu berezi hau: “Moldaketa bat egin genuen, baserriarren kasuetarako, lur jabetza horiek garrantzia handirik ez izateko ordainketa kalkulatzeko orduan”. Gizarte Larrialdietarako laguntzen kasuan ere, araudiak uzten duen heinean, moldaketak egin dituzte, nekazaritzan jardun izan duten pertsonen kasuan konpentsazioak errazteko.





## BASOGINTZA IRAUNKORRA, ERREZ

### Aramaioko Errez Kooperatiba txikiak basogintza, ikerketa eta hezkuntza lanak egiten ditu

Ingurumen eta errentagarritasun aldetik jasagarria den basogintzarako zerbitzuak eskaintzeko sortu zuten 2018an Errez Kooperatiba, Aramaion kokatua

Pagadi baten osasun bikaina adierazten du Rosalia alpina kakalardo adarluzearen presentziak. Horixe aukeratu zuten irudi korporatibo moduan Errez Kooperatiba Elkarte Txikia eratu zutenean, 2018an, Markel Arriolabengoa Martiarena baso ingeniariak (Aramai, 1990) eta Iñaki Etxebeste Larrañaga biologoak (Arrasate, 1979). Oraintsu batu zaie hirugarren lankidea, artzaintzan eta ingurumen teknikari aritu izan den Aitor Kortabarria Iparragirre (Bergara, 1995). Errez izena hartu zuten, eta askorentzako erronka benetan zaila denari, basogintza iraunkorrari, ekiteko, era askotako zerbitzuak ematea da haien lana. Etorkizuneko bestelako basogintza posible ezezik, errez egiteko, gaurdanik.

### Basoak ikertu, neurtu, planteatu, landatu, zertifikatu... eta basogintzan hezi

“Beste basogintza eredu bat praktikan jarri nahi duen ekimena da hau; horretarako, basogintzari lotutako lan praktikoez gain, ingurumen ikerketak eta hezkuntza saioak ere eskaintzen ditugu”, azaldu du Markel Arriolabengoa. Gaur egun, hiru ildoak jorratzen dituzte, baina pisu handia hartzen ari dena basogintzako atala da. Hor sartzen dira: baso aholkularitza, baso neurketak, kudeaketa planak, landaketak, zertifikazioak, baso lanen koordinazioa edota mugen kudeaketa. Ingurumen ikerketarako lanak ere egiten dituzte, hori batik bat Iñaki Etxebesteren arloa izanik (biologo hau basogintza iraunkorrean doktorea da eta batez ere gaixotasun eta izurriteen ikerketan aritu izan da lanean urte askotan Gaztelan eta Eskandinavian). Hezkuntzan, berriz, basogintza jasagarriaz hitzaldiak eskaintzen dituzte, baita ikastetxeentzako formakuntza saioak ere.

“Basogintzan, beste edozein enpresak egiten dituen lanak dira gureak: basoak neurtu, tasatu, landaketa eta kudeaketa planteatu, landatu... baina guk bestelako basogintza ikuspegi batetik egiten dugu”, azaldu du Arriolabengoa. “Bestelako” esaten duenean, ez da ezer abstraktoa, ordea. Ez dute ezer asmatu, baina bai beste herrialde batzuetako hainbat urtetako esperientziak kontuan hartu eta hemen aplikatzeari ekin: “Ekin ezina da basogintzarako beste eredu jasagarri horiek hona ere heltzea”.

Larrialdi klimatikoak, basoak berak eta espezie inbaditzaileek arduratzen dituzte Errez-eko kideak. “Uste dugu egoera honi aurre egin behar zaiola, hainbat alde kontuan izanda: baserritarrentzako, basogintza sarri-

tan bada errenta garrantzitsu bat, baina errentagarritasun hori pentsatu behar da kontuan izanda basoak egurrez aparte beste zerbitzu asko ere ematen dituela, karbonoa irenstea edota akuiferoen emaria hobetzea, adibidez”. Gaur, bihar eta etzi ere jasagarria eta errentagarria izango den basogintza da planteatzen dutena, horretarako tokian tokiko espezieak landuta; “orain arte batik bat isurialde atlantikoko lurretan gabiltza lanean, eta hemen baso misto atlantiarreko espezieak hartzen ditugu ardatz”. Azken 150 urteotan Euskal Herri atlantikoan bertoko espezieetan oinarritutako basogintza aprobetxamenduak baztertu egin dira, Errez-ekoek azaldu dutenez, “ikatzgintza eta su egurraren salbuespenarekin”. Azken belaunaldiok ezagututako eten horri buelta ematea, baina, posible da, beste herrialde batzuetan jada ikusten ari denez.

### Monokultibo eta matarrasa gabeko basogintza. CAS eredu

“Basogintza iraunkorrerako irtenbideak asko izan daitezke, ez dago bakarra, baina basogintza iraunkorrerako zein ez dan bidea, hori argi dago”, dio Iñaki Etxebestek. “Badakigu, adibidez, arbolak arrasean jotzeak (matarrasak) suposatzen duen kaltea handia dela: alde batetik, urtetan metatutako CO2a askatzen da txapelik gabe geratu den lurretik, eta bestetik, batez ere gurea bezalako lurralde aldapatsuetan, higadura handitzean lurren zati emankorrenaren galeragatik basoa erregeneratzeko oztopoa delako”. Genetika urria daukaten espezieetan oinarritutako basogintzak (monokultiboek eta klon landaketek) dakartzan kalteak ere jada ikertuta daude: “eremu horiek oso zaugarriak dira izurrite edo gaitz berri bat sartuz gero”. Eta bulnerabilitate ekonomikoa ere gogoratu du Etxebestek: “erabilera edo produktu bakarrera bideratutako materiala ustiatzen bada, eta horren eskaria jausten bada, jada ustiaketa hori ez da izango bideragarria”. Gainera, era horretako landaketak oso homogeneoak izaten dira, adin bereko zuhaitzenak: “ikertuta dago egitura horiek hauskorragoak direla haizeteen aurrean, adibidez, domino efektuagatik”.




Hainbat lekutan eta urtetan ikertu diren basogintza eredu artean, gaur egungo erronka klimatikoa kontuan hartuta, CAS basogintza modura izendatzen dena dute erreferentzia nagusi gisa Errez Kooperatiban. “Complex Adaptive Systems esan nahi du, hau da, baso ekosistemak egokitzen diren sistema konplexu bezala aitortzen ditu kudeaketa eredu honek. Egokitzeko gaitasun hori oso garrantzitsua da bizi dugun aldaketa garai honetan; ez dakigu zer gertatuko den klima larrialdiaren kontura, merkatuen etengabeko mugimenduek eta gizakion batera eta besterako mugimendu globalek aurreikusezinak diren ondorioak eragiten (eta eragingo) dituzte, bai gaitzak, izurriteak, merkatu-desplomeak, haizeteak, tenperatura gorabeherak...”, azaldu du Etxebestek. Horrenbestez, etengabeko eta aurreikusi ezinezko aldaketa horietara moldatzeko gaitasuna inoiz baino garrantzitsuagoa da.

CAS ereduari, bigarren faktore klabea da konplexutasuna. Etxebeste: “historikoki ikusi ditugu baso-landaketak sistema lineal edo oso aurreikusgarri bezala, Mando y control estrategiarekin planteatuak, baina hain epe luzeetan eta hain eremu zabaletan kontrol hori ezinezkoa da”. Beraz, basoa den bezala tratatzea planteatzen du CAS ereduak: “baso ekosistema bat da, konplexutasun oso altua duena eta oraindik ezagutu ere egiten ez diren hainbat dinamiken arabera orekatzen dena; orduan, ekosistema askotariko hori sustatzeko interbentzioa da planteatzen dena basogintza konplexua aipatzen denean”.

**Ekoizteko beste modu bat da planteatzen duguna. Herri moduan ere ardura daukagu, kontsumitzen duguna produzitzeko, eta ez beste herrialde batzuetatik ekarri, gure aztarna ekologikoa eta esplotazioa eraginez beste leku batzuetan.**

“Ekoizteko ardura daukagu, baina horrek ez du esan nahi gaur egungo moduan egin behar dugunik. Beste modu batzuk existitzen dira, seguruagoak direnak ekologikoki, eta ekonomikoki”, azaldu dute. Eta erreferentziak egon, badaudela gogoratu dute. Batzuk Euskal Herrian bertan: “Iratiko basoan asko ustiatzen da, baina modu jasagarrian; Aramaion bertan, Kondebasoko 1.000 hektareako eremuan; Gorbeian Zuia aldeko basoetan...”. Beste batzuk Europako hainbat lekutan: “Frantziako estatuan duela ia 40 urtetik hona eredu iraunkorarekin ustiatzen diren 50 bat baso monitorizatzen dira, eta emaitzak orekatuak dira ekologiaren aldetik eta errentagarriak ekonomia aldetik”. Belgika, Polonia, Suitza, Irlanda eta Erresuma Batua ere aipatu dituzte, basogintza iraunkorrean esperientzia interesgarri askoko lekuen artean.





### "Oinordekoengan pentsatu"

